



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA  
2019/06/13

## **Berrogeta hamar persona inguruk gozau dabe Enkarterrietako Museoak antolatutako “Erdi Arora bidaia” ekimenagaz**

Bizkaiko Batzar Nagusien esku dagon Enkarterrietako Museoak “Erdi Arora bidaia eta indusketa arkeologiko baten bisitea” antolatu dau gaur, Europako Arkeologia Jardunaldien barruan. Jardunaldiak Bizkaiko Foru Aldundiaren ekimena dira, Arkeologi Museoak koordinetan ditu, eta EHU/UPVko Kultur Paisajeen Unesco Katedrak eta lurraldeko hainbat museok hartu dabe parte.

Berrogeta hamar persona inguruk gozau dabe gaur Aurkikuntzako zirkuituaz. Ordu bitan, Enkarterriko hainbat leku enblematiko bisitau ahal izan ditue, historian eta historiarako bizi dan eta berez be artelana dan Museoa bera barru.

Ibilpidea goizeko 11:00etan hasi da El Torrejonon, auzoari izena emon eutsan Abellanedatarren leinuko dorre zaharra egoan lekuan. Bertatik San Bartolomeko baseleizara joan dira, eta bertan Goi Erdi Aroko tenpluko indusketa arkeologikoak eta nekropolia bisitau ditue. Bisitan nabarmendu diran lekuak egungo eleizea, Urrutia Dorrea eta Batzarretxea –egungo Enkarterrietako Museoa– izan dira. Guztiak XVI. mendean eregitakoak dira. Horren ostean, Museoko beste areto batzuk ikusi dira eta, bukatzeko, Batzarkideen Ostua eta Korregidorearen Etxea ezagutu dira, XVIII. mendean egindako eraikinak.

Gaurkoa, Enkarterrietako Museoak antolatu dauen eta Ondare babesa S.L.-ren, Bizkaiko Eleiz Museoaren eta Bilboko Gotzaitegiaren laguntzea euki dauen beste kultur jarduera bat izan da. Museoa Enkarterriko eraikin enblematikoenetako baten dago. Gizaldi luzez, eraikina Enkarterriko gobernu politikoaren egoitzea izan zan. Gaur egun, alkartzeko, gozatzeko eta Enkarterriko orainaldia eta iragana ezagutzeko lekua da, eta baita eskualdearen ondare historikoa, kulturala eta etnografikoa zabaltzeko eta ezagutuazoteko gunea be.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

13/06/2019

## **Medio centenar de personas han disfrutado de un “Viaje a la Edad Media” organizado por el Museo de las Encartaciones**

El Museo de las Encartaciones, que pertenece a las Juntas Generales de Bizkaia, ha organizado hoy “Viaje a la Edad Media y visita de una excavación arqueológica”, dentro de las Jornadas Europeas de Arqueología, una iniciativa de la Diputación Foral de Bizkaia coordinada por Arkeologi Museoa y en la que han colaborado la Cátedra Unesco de Paisajes Culturales de la UPV/EHU y varios museos del territorio.

Medio centenar de personas han disfrutado hoy de este Circuito de descubrimiento en el que han podido recorrer durante dos horas algunos lugares emblemáticos de Las Encartaciones, incluyendo el propio Museo, una obra de arte en sí misma que vive por y para la historia.

La ruta ha comenzado a las 11 horas en El Torrejón, lugar donde se ubicaba la primitiva torre del linaje de los Abellaneda que dio nombre al barrio. Desde allí se han dirigido a la ermita de San Bartolomé, donde se ha visitado las excavaciones arqueológicas del tiempo altomedieval y su necrópolis. La visita ha puesto el acento en la actual iglesia, en la Torre de Urrutia y en la Casa de Juntas, -actual Museo de las Encartaciones-, todas ellas construidas en el siglo XVI. La visita ha continuado recorriendo algunas salas del Museo para terminar conociendo la Posada de los Junteros y la Casa del Corregidor, edificios levantados en el siglo XVIII.

La de hoy ha sido una nueva actividad cultural gratuita organizada por el Museo de las Encartaciones y que ha contado con la colaboración de Ondare babesa S.L., el Museo Diocesano de Bizkaia y el Obispado de Bilbao. El Museo se ubica en uno de los edificios más emblemáticos de Las Encartaciones, que fue durante siglos centro del gobierno político encartado. Actualmente, es un lugar de encuentro, disfrute y conocimiento del presente y pasado de Las Encartaciones y también, de promoción y difusión del patrimonio histórico, cultural y etnográfico de la comarca.